

TESTUA IRAKURRI AURRETIK

1. Testuaren aurkezpena: zergatik irakurtzen dugu? Non kokatzen dugu?
2. Nor da egilea? Non argitaratu zuen testua? Jakin dezakegu zertarako idatzi zuen?
3. Titulua irakurri ostean: jakin dezakegu zertan datzan?
4. Azpitolua irakurri ostean: ezer argitzen digu?
5. Zer dakigu gaiari buruz? Zuen ekarpenak...

Orain testua irakurri eta ...



IRAKURTZEN DUZUN BITARTEAN

1. Hitz ezezagunak azpimarratu eta saiatu ematen horien definizioa. (*Estrategiak*)
2. Paragrafo bakoitzean aipatzen den ideia idatzi. (*Interpretazio galdera. Estrategiak*)

Domotika eta erosotasuna elkarri helduta datoz

Imajinatu ezazu lanean zaudela eta, telefonoz dei soil bat eginez, labea pizten duzula; horrela, etxera heldu ordurako, janaria prest izango zenuke. Edo egunero bost minutu beranduago jaiki zaitezkeela, kafeterak bere kabuz berotuko duelako kafea. Harrigarria, ezta? Bada, gaur egun hori guztia egin daiteke teknologia berriei esker.

KATIXA GARATE (ARGIA ALDIZKARIA)- Moldatua-

2000ko maiatzaren 21a

Informazio-teknologiak etxe barrura sartu zaizkigu jada. Geroz eta etxe gehiagotan dago ordenagailua, alabaina informatika aparailu horretatik jauzi egin eta etxeko beste gailuetan barneratu da. Etxeko esparruan murgildu den teknologia horri domotika deritzo. Domotikak etxean dauden aparailuen kontrola eta gestioa ahalbidetzen du. Horretarako, etxean dauden gailu eta aparailu desberdinen artean sare bat osatu beharra dago. Jakina, sare hau osatzeko etxetresna elektriko eta bestelako gailu domotikoak behar ditugu. Hozkailua, garbigailua eta beste tresnak konektaturik egongo dira, "garun" elektroniko baten agindupean. "Garun" hau arduratuko da sare horretako gailuen gestio eta kontrolaz, baita etxetik kanpora duen harremanaz ere.



Sare domotikoa osatzen duten elementuak lotzeko, sistema desberdinak erabiltzen dira. Sare batzuk elektrizitatea dute oinarri. Beste batzuk, ordea, telefono-kableak, kable bereziak edo irrati-frekuentzia. Etxea eraikitzen ari den bitartean sare domotikoak behar duen azpiegitura ezarriko bagenu, ez litzateke garestia izango. Ondoren, gailu domotikoak jarri beharko genizkioke. Gure etxea berria ez bada, berriz, dauden instalazioak erabiliz (elektrizitate-kableak...) domotizatu beharko genuke, garestiegia izan ez dadin.

3000 euro, gutxienez

Urtarrilean Donostian egin ziren energi eraginkortasunaren inguruko jardunaldi batzuetan, domotikan diharduen Dinitel enpresako Ikerketa eta Garapen arloko zuzendari teknikoak, Natividad Garciak, esan zuenez, etxe bateko aparailu guztiak automatizatzeke, 3000€-4000€. bitartean behar dira. Dena den, inbertsio horrek etekinak ematen ditu, sistema domotikoak energi kontsumoa optimizatzen baitu, %40 inguru adituen arabera. Horretaz gain, sistema hau irekia da, edozein unetan prestazioak gehitu ahal zaizkiolako. Beraz, ez dugu zertan inbertsio guztia batean egin.

Etxebizitza domotikoak urriak dira Euskal Herrian. Estatu Batuak, Alemania, Eskandinavia edo Japonian, ostera, oihartzun handia dute. Hemendik urte gutxira ezagunagoa bilakatuko dela diote adituek, telefono mugikorren moduan. Domotika gutxi zabaldua egotearen arrazoi garrantzitsuena bere prezioa da. Bere ezarpen murrizta azaltzen duen beste arrazoi bat gizartearen gehiengoarentzat ezezaguna izatea da, jendeak ez daki zein abantaila eskaintzen dituen-eta.

PREST AGINDUAK JASOTZEKO.

Domotikak dakartzan onurak ugariak dira. Lehenik eta behin, oso eroso da, etxeko edozein puntutik edo bertatik kanpo sistemari aginduak emateko aukera ematen baitu. Gainera, erraza da oso erabiltzea. Bigarren, energia aurrezte ahalbidetzen du. Sistemaren "garunak" elektrizitatea edo bestelako energiak erabiltzerakoan, gau tarifak eta uneko eskaintzak kontuan hartuz, dirua aurrezten laguntzen digu. Hirugarren, etxearen segurtasuna kontrolpean izango dugu. Izan ere, sistema suteak, gas-ihesak eta ur-ihesak detektatzeko gai da. Kasu horietan, ihesei bidea itxi, eta aurrez programatutako telefono-zenbakiei, suhiltzaileei adibidez, abisu emango lieke. Eta azkenik, automatismoak atezain automatikoko irudiak telebistan ikustea, kontratatutako potentzia elektrikoa baxuagoa izatea edo sentsoreen bidez argia piztu eta itzaltzea ahalbidetzen du.

ETXE DOMOTIKOAK EUSKAL HERRIAN.

Gure inguruan hainbat enpresa ari da sistema eta produktu domotikoekin lanean. Besteak beste, Dinitel, Fagor eta Indotec ditugu. Fagorrek duela gutxi Maior-Domo saila merkaturatu du, argindarraren instalazioaz baliatzen dena. Telefono bidez kontrolatzen dira sail honetako etxetresna elektrikoak, eta sistemak telefona ere erabiltzen du gerta daitezkeen arazoen berri emateko. Etxetresna domotiko hauek hondatzen direnean, matxuraren arazoia zein den ezagutzen laguntzen digute, eta telefono-dei batez abisua ematen digute. Sistemak erabiltzailea prozesu osoan gidatzen du. Erabiltzaileak aukera ezberdinak telefonoaren teklatuan hautatzen ditu, eta berehala, telefonoaren ahozko mezuek agindutakoa berresten dute.

Etxeko eginbeharrak errazten dituzten produktu ugari ikertzen ari dira enpresa informatiko eta elektronikoak. Batzuk, merkaturatu daude dagoeneko, eta besteak, denbora gutxi barru dendetan izango dira. Electrolux etxeak, esaterako, hozkailu



elkarreragile edo interaktibo bat aurkeztu du. Screenfridge du izena prototipoak eta Interneten nabigatzeko balio du. Atean beira likidoko ordenagailu bat du, eta horren bitartez, erosketak egin, errezetak kontsultatu nahiz barruan dauden elikagaiei epea noiz amaitzen zaien ikus dezakegu.

Etorkizunera begira, bi gauza lortu behar ditu domotikak. Batetik, sare domotikoa marka desberdineko gailuekin osatu ahal izatea. Eta bestetik, ordenadorea elementu garrantzitsua bihurtzea sare honetan. Izan ere, Internet ezinbestekoa izango da domotikaren garapenean. Horrela, beste herrialde batetik gure web orrian sartuta, etxeko lorategia ureztatu ahal izango dugu, edota etxean instalatuta dauden kameraren bitartez, gure etxea nola dagoen ikusiko dugu. Edota sendagileak gaixoa etxean dagoela erietxetik zaindu. Edota bizarra mozten dugun bitartean ispiluan egunkarietako titularrak irakurri. Edota...

TESTUA IRAKURRI OSTEAN

1. Zeintzuk dira sare domotikoa osatzen duten elementuak lotzeko erabiltzen diren sistemak? *(Galdera zuzena. Ulermena)*
2. Bilatu informazioa testuan eta esan egia ala gezurra den hemen agertzen dena: *(Interpretazio galdera. Ulermena)*

	EGIA	GEZURRA
Sistema domotikoa instalatu ostean, inoiz ez dugu edukiko ur-ihesik etxean		
Hemendik urte gutxira, Eskandinaviako etxe guztiak domotizatuak egongo dira		
Etxeko aparatu guztiak automatizatzeko egin behar den 3000€ ko inbertsioarekin, %40 aurreztuko da		
Ikusita domotikaren onurak, Euskal Herriko etxe guztietan instalatuko da		

3. Bilatu eta idatzi ezkutatu dagoen esaldia: *(Galdera zuzena. Ikuste-trebezia)*

⇒	D	O	M	O	T	I	K	A
	L	U	E	N	K	O	N	K
	I	O	A	A	H	A	T	E
	A	I	E	N	D	L	R	T
	R	T	Z	.	U	B	O	X
	A	S	T	E	D	I	L	E
	P	E	G	A	T	E	A	A
	A	N	E	D	U	A	D	N

4. Esan esaldi hau egia den ala ez eta azaldu zergatia: *(Interpretazio galdera. Ulermena)*
Merkeena domotizazioarako beharrezkoak diren instalazioak etxea eraiki bitartean ezartzea da; bestela, zulatu beharko dira sabaiak, zoruak eta hormak beharrezkoak diren osagaiak instalatzeko.



5. Benetako elektrizitatearen faktura batetik abiatuz, kalkulatu zenbat aurreztuko genukeen etxea guztiz domotizatuta edukiko bagenu. *(Interpretazio galdera. Estrategiak)*
6. Aipatu zure etxean hiru gauza zehatz domotizatuko zenituzkeenak zure bizitza erosoago egiteko. Zure erantzuna justifikatu. *(Iritzi galdera. Estrategiak)*
7. Testuan domotizazioaren onura batzuk ikusi ditugu, baina zure ustez arazorik edo eragozpenik badu? Azaldu. *(Iritzi galdera. Estrategiak)*

